

Anartz Trapero Irastorza

D maila • 2 aipamena

Anartz Trapero Irastorza 2008 ko Uztailaren 24 an jaio nintzen Zaldibian.

Lardizabal eskolan ikasi nuen 2020 arte, ondoren Ordiziako Oianguren Institutura joan naiz.

Lardizabal eskolan nengoela xakean ibiltzen nintzen eta taldeka hirugarren postua lortu genduen Gipuzkoako Xake Txapelketan.

Xakeaz gain kirol gehiago gustatzen zaizkit bertsolaritza, pelota, futbola...

Lagunekin egotea gustatzen zait, mendira joatea, bizikletan ibiltzea mendian zehar.



Doinua: Loreak udan ihintza bezela

URTAROAK

1. UDAZKENA

Mendi ibilbidean
ostoak lurrean
zuhaitzak biluzi ta
lainoak zeruan
paisaia ederra dugu
guztiok aurrean
hotza hasi da eta
denak sutondoan

2. NEGUA

Kaleak zuri- zuri
elurra mendian
eguberri jaia
familia inguruan
alaitasuna eta
poza bihurtzean
urtaro hotza baina
berotasunean.

BERTSOAK

3. UDABERRIA

Loreak belardian
kolore politak
usain gozoa eta
hegan tximeletak
gazte eta helduek
denen irrifarrak
zoriontasuna eta
eguzki disdirak.

4. UDA

Opor garai ederra
denen poztasuna
hondartza eta mendian
gozatu eguna
lainorik ez daukagu
zerua urdina
egun luzea eta
gau atsegina.